

## Euskararen astea 2011-2012

2011/11/29

Aurtengoa izango da Mondragon Unibertsitateak ospatuko duen hirugarren euskararen astea.

Hiru fakultateetan hainbat ekintza egingo dira euskararekin lotutakoak.

Aste guztian zehar, ikasleek Garabide elkarteak euskararen berreskuratzeari buruz egin duen dokumentalaren zati bat ikusiko dute eta ondoren fakultate bakoitzean jarriko den hormairudian, dokumentalak iradoki dien mezu, esaldi edo kontzeptuak idatziko dituzte.

Abenduaren 1ean, *Ikerketa, euskara eta dibulgazioa: irtenbideak* tailerra egingo da. Iaz egindako sormen tailerraren jarraipena izan nahi du, horretarako fakultate guztietako ikerlariak elkartuko dira eta hurrengo urteetan euskarak ikerketan presentzia handiagoa izateko ekintzak zehazten saiatuko dira.

Bestetik, abenduaren 2an ekitaldi ludikoak ere izango dira fakultateetan: Olinpiadak egingo dira Goi Eskola Politeknikoan, Mihiluze josala HUHEZIn eta bertso bazkaria Enpresagintzan.

